



Lasuen etxebizitza

Aldacrak: Lasuenemetikoa / Lasuenbekoa
Ahozkoa: Lásuen

“... la casería rústica titulada Lasuen emeticoa... situada en la Cofradía o barriada de San Lorenzo, jurisdicción de la Anteglesia de Berriz, que comprende con inclusión de la tejavana horno y terreno antusano doscientos treinta y cuatro estados... la que es de dos viviendas, y se compone de piso bajo y alto, con sus correspondientes divisiones cuadras y habitaciones...”
DJE, 3/9. or. (1870)



43° 11' 1"

2° 33' 23"

Berriz Irudian / T. Angoitia

Arietzu aldean kokatzen den baserri honen gaineko lehen aipamenak Bizkaiko su-erroldean aurkitzen ditugu XVIII. mende hasieran, hots, *Lasuen* (1704). *Lasuen* izen-osagaia duen beste baserriatik bereizteko (**Ikus Lasuenandikoa**), era desberdinak hartuko ditu dokumentazioan: *Lasuen de Iuso* (1745, Bizkaiko su-erroldeak), *Lasuen de aca* (1825, PE/1825), *Lasuen emeticoa* (1857, BUA, Viv), *Lasuen Hemetikoa* (1910, BUA, RU) eta *Lasuen emeticoa* (1967, BUA, CE). 1859ko izendegian aldiz, *Lasúen* (1859, BUA, Nmc) moduan dokumentatzen dira baserri biak. Auzotarrek, *Lásuen* forma erabili izan dute, eta *Lasuenemetikoa* edo *Lasuenbekoa* legez ere ezagutu dute baserri hau.

Baserri etxe handia, bizitza bikoa. Isurialde biko teilatuaren azpian hiru pisu eta ganbaradun etxea dago, oso zabala, fatxada ia modu

simetrikokan antolatuta daukana edo, hobeto esanda, ardatza indartuta. Hala, erdian atarteauka, arku eder baten bidezko sarreraduna; lehenengo solairuan, leiho luzea; bigarrenean, leiho arrunta, eta ganbaran, leiho txiki bakarra. Alde banatan, eta solairu bakoitzean, leiho arruntak. Eraikitze erabilitako materiala harlangaitza da, harlanduzko baoekin, harlanduzkoa den moduan atartearen barrualdea. Ganbara aldean, berriz, horma luzitu eta margotuta dago. Bere ezaugarrien arabera, esan daiteke XIX. mende amaieran edo XX. mende hasieran egindako etxea dela. Eta egitea agindu zuena, oster, inskripzio bati esker dakigu, Ipar Mendebaldeko fatxadako leihoburuan idatzi zutelako: “*ESTA CASA IZO / JUAN DE LASUEN*”.

toponimia

Bi dira Euskal Herrian -suen amaiera duten izenak, *Lasuen* eta *Besuen* (**Ikus Betzuen**), biak Berrizen eta inor ez da sekula esangura azaltzera ausartu. Agian bigarren osagaia -guen izan liteke aurrean -s- edukitzeagatik -uen bihurtua. Hori horrela balitz pentsa genezake lats “erreka” hitza dugula eta esanahia “errekagoien” dela, baina oso zalantzarazkoa da etimo hau.